

Disruptore endokrinoentzako irizpide berriak EBn: elikakatean ditzuten ondorioak. Lan-mahai eskandinaviarra (Uppsala, 2016ko azaroak 29-30)

Disruptore endokrinoak (DE) hormonen funtzionamenduan eragiten duten substantziak dira, eta **kalteak eragin ditzakete osasunean**. Askotariko produktu kimikoek eragiten dute disruptzio endokrinoa. **Zaila da horiek identifikatzeko irizpidea zientifikoki zehaztea**, eta ondorio garrantzitsuak izan ditzake esparruko erakunde eta enpresa askotan.

Europako Batzordeak zenbait urtez atzeratu ditu irizpide zientifikoak ezartzeko erabakiak, baina azkenean 2017ko irailaren 4an ezarri zituen asaldura endokrinoaren propietateak zehazteko irizpide zientifikoak. Horretarako, **Batzordearen 2017/2100 Erregelamendu Delegatua (EB)** egin zuen, zeina 2018ko ekainaren 7an sartu baitzen indarrean estatu kide guztietan.

2017ko irailaren 4ko Batzordearen 2017/2100 Erregelamendu Delegatua (EB) (https://eur-lex.europa.eu/eli/reg_del/2017/2100/oj)

Elikakatearekin zerikusia duten hainbat eragilek osaturiko lan-mahai bat bildu zen 2016ko azaroaren 29an eta 30ean, eta bertan Europako araudi berria indarrean sartzearen ondorio positibo eta negatiboak aztertu zituzten, baita hori aplikatzeko modua ere.

2018ko abuztuaren 30ean, Ministroen Kontseilu Eskandinaviarrak bilera horretan **landutako gaiak jasotzen dituen liburu bat argitaratu zuen**.

Dokumentu osoa: "New EU criteria for endocrine disruptors: Consequences for the food chain" (<http://norden.diva-portal.org/smash/get/diva2:1243064/FULLTEXT02.pdf>)

Tartean diren agintaritzen, fabrikatzaileen eta merkaturatzaileen eztabaiden ondorioak

Erregelamendu berriak ezarritako irizpidearen bidez DE bat identifikatzen bada eta substantzia hori elikakatean erabiltzen bada, **mugak edo debekuak** aplika dakizkioke. Halaber, kutsatzaile gisa ere identifika daiteke, CMR substantziekin (kartzinogenoak, mutagenoak eta ugalketarako toxikoak) gertatzen den moduan. Edonola ere, halako substantzia bat identifikatzeak **eragin handia izango du elikagaien ekoizpenean**, merkaturatze-prozesuan eta tartean diren eragileengan.

Hona hemen Uppsalako bileran alde **interesdunek emandako iritzietako batzuk**:

- **DEak pixkaka murrizteak hobetu egin dezake enpresa ekoizleen irudia**, jasangarritasunaren aldeko lanean inplikaturata daudela erakusten baitu.
- Produktuetako DEei buruzko **ikerketarik ez egiteak hondatu egin dezake tartean diren enpresen**

sinesgarritasuna eta erreputazioa.

- Ekoizpen-sektorearen ikuspegitik begiratuta, erronka konponbide alternatiboak erabiltzeko **aukera mugatueta edo aukerarik ezean datza.**
- Substantzia bat **aldatzearen kostua** oso txikia da enpresaren erreputazioan, sinesgarritasunean eta negozioan eragiten duen kaltearen aldean.
- Alabaina, alternatibak ezartzeko beharrezkoa da **ebaluazio zientifikoak** oinarri izatea. Produktuak probatu egin behar dira, eta fidagarriak eta seguruak direla bermatu.
- DEak ingurumenean sartzea **saihesteko eta mugatzeko ahaleginak** egin behar dira.
- Onurak osasun publikoaren ikuspegitik ebalua daitezke, baina ekoizpen-industriak **kostu gehigarriak baino ez ditu ikusten**; beharrezkoa da nazio-mailako irabaziak/kostuak zehaztea.
- Arazo espezifikoak sortzen direnean, garrantzitsua da agintaritzek **arriskuak jakinaraztea eta horiei buruzko informazioa ematea** ekoizleei, batez ere ikerketaren edo kontrolaren lehen faseetan.

Elikagaien sektorearen barnean, **arriskuaren ebaluazio zientifikoan oinarritutako EBko legeria harmonizatua lehenesten da** -tartean diren eragile guztiak berdin tratatzen dituen-, erregulazio edo legeria espezifiko nazional ez osaturiko esparru horizontal bat beharrezkoa.

Elikagaietako disruptore endokrinoen eta horien ekintza-mekanismoen analisia

Bilerari buruzko dokumentazioaren informazio osagarri gisa, beste azterlan bat ere erantsi da, **disruptore endokrinoen mekanismoei eta ekiteko moduei buruzko ikuspegi orokorra** jasotzen duena, baita substantzia horiekiko esposizioak ondoez eta gaixotasunen garapenean dituen eraginei buruzkoa ere.

Hauk dira aukeratutako DEak: BPA, **ftalatoak** (DEHP, BBP, DBP, DINP, DIDP), **antioxidatzaileak** (BHA, BHT), **parabenoak** (Me-, Et-, Pro-), **ditiokarbamato plagizidak** (mancozeb, maneb, metiram, propineb, thiram, ziram) eta **fitoestrogenoak** (genistein).

Hona hemen **analisiaren ondorio nagusiak**:

- Ikusi da **sistema endokrinoa plastikoa dela berez eta erraz egokitzen dela ingurune aldaketetara.** Horrenbestez, ahula da ingurumen-estimulu berrien aurrean, bereziki bere bizitzako lehen urteetan, hots, komunikazio-bideak eta konexioen kontrola osatzen ari direnean.
- **Alde nabarmenak daude zientzialarien eta agintaritzaren legegileen ikuspegi artean.** Legegintza-prozedurak ezartzeko beharra dago, DEak giza osasunean dituzten eraginak ziurtasunez aurreikusi ahal izateko.
- DEen arriskuen identifikazioan oinarritutako 2017/2100 Erregelamendu berriaren bidez, substantzien berezko propietateak soilik hartuko dira kontuan erabakiak hartzeko, eta ez konposatuekiko esposizioa. Alabaina, propietate horien ebaluazioa printzipio toxikologikoen bidez egiten jarraitzen da. **Irizpide berriari esker maila baxuan dauden ED pluri-potentek** -sistema endokrino askotan eragiten dutenak- **erregula daitezke**, zeinak kalteak eragin baititzakete fetuen garapenean, eta horrek helduetan gaixotasun ez-kutsakorrek sortzea eragin.

— Informazio interesgarria

- Disruptore endokrinoak identifikatzeko gida. ELIKA (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eu/disruptore-endokrinoak-identifikatzeko-gida-echa/>)
ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eu (mailto:berri@elika.eu)